

HERNANIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIURIAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI ERREGULATZAILEAK.

ARRAZOIEN AZALPENA

Hernaniko Udalak 2014. urtean Aztikerrekin batera, Hernaniko gazteen egoera aztertzekeo prozesu parte-hartzailea jarri zuen martxan. Gaztetu Hernani prozesuaren helburua Hernaniko gazteriaren egoera gazteekin aztertzea zen, iritzi, joera eta behar nagusiak detektatzeko eta ahal den neurrian haiei erantzuteko. Prozesu honen barruan, etxebizitzaren alorrean, hainbat eskaera eta proposamen egin ziren. Haien artean, alokairurako erraztasunak ematea proposatu zen, gazteen testuinguru eta baliabide ekonomikoak kontuan hartuz. Oinarri hauek eskaera horri erantzuteko asmoa dute.

Prozesua amaitzearekin batera eta gazteen eta udalaren artean sorturiko dinamikari jarraipena emateko asmoz, "Gaztetu" gazte-kontseilua sortu zen. Jarraian agertuko diren hainbat baldintza eta eskakizun kontseilu honetan landu dira. Oinarri hauek bertan hitz egindakoari eta erabakitakoari jarraitzen saiatu dira.

Era berean, 2014an buruturiko 2015eko udal aurrekontuan parte-hartzekeo prozesuan, herritarrek alokairua sustatzeko dirulaguntzak ematea proposatu zuten: gazteei zuzendutakoak eta gainerako herritarrei zuzendutakoak. Halaber, Hernaniko Udalak egindako hausnarketaren ondorioz, etxebizitza alokatzekeo zailtasunak dituzten beste talde batzuk badaudela antzeman du, alokairuko dirulaguntza hauek banatzerakoan tratamendu berezia beharko luketenak, alegia.

Hori guztia horrela izanik, oinarri arautzaile hauen xedea da Hernanin etxebizitzak alokairuan hartzekeo dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea.

Azken helburua da:

- Bereziki pertsona gazteei laguntzea euren emantzipazio bidean.
- Modu orokorrean, Hernanin alokairuko etxebizitza eskuratzea erraztea.

I. XEDEA

1. artikulua. Xedea.

1. Laguntza hauen xedea da eskaera egiten dutenen ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea, dagoeneko etxebizitza errentan hartuta badaukate eta horretara bideratuak dauden gainerako laguntzetarako (Gaztelagun, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria edo Gizarte Larrialdietarako Laguntza) eskubiderik ez badute.

2. Bi adin-multzo ezberdinduko dira:

- "A-Modalitatea": Gazteak. 18 eta 35 urte bitartekoak
- "B-Modalitatea": Helduak. 36 urtetik gorakoak.

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza, eta onuradunak hamabi hilabetean ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak: diruz lagunduko diren alokairu-gastuak deialdia zabaltzen den urte horretako urtarrilaren 1etik hurrengo urteko abenduaren 31ra bitartekoak izango dira.

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairutik edo diruz lagundu daitezkeen kontzeptutik kanpo geldituko dira garaje eta komunitate eta administrazioeko gastuak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.

2. artikulua. Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da, 2015ko urriaren 2ko Alkate Dekretuz emana.

3. artikulua. Ezargarri den araudia.

Dirulaguntzak ematea eta onuradunaren eta entitate emailearen arteko harreman juridikoa oinarri hauen arabera eta laguntza ematen den unean indarrean dagoen araudiaren arabera arautuko dira.

Oinarri horietan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte dirulaguntzak:

- Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Hernaniko Udalaren udal dirulaguntzen araudia 2004koa (GAOn argitaratua 2005-02-18)
- Hernaniko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa 2017-2019 (GAOn argitaratua 2015eko abenduaren 27an)

4. artikulua. Onuradunak

1. Pertsona fisikoek eskuratu ahalko dute dirulaguntza, bakarrik nahiz bizikidetzaren unitate batean bilduta bizi, baldin eta 5. artikuluan jasotako baldintzak betetzen badituzte.

2. Oinarri honen ondorioetarako, bizikidetzaren unitateak dira etxebizitza edo bizileku berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean ezkontzaren bidez edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkorra dutenean, edo laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunagatik edo bigarren mailarainoko ezkon-ahaidetasunagatik, edo familia-harrerako harreman iraunkor batengatik edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman batengatik batuta daudenean.

3. Bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztiak, seme-alaba adingabeek izan ezik, oinarri honetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

4. Udalak bizikidetzaren unitate kasu berriak definitu ahal izango ditu gizarte-bilakaeraren arabera, eta bereziki, familia-egitura eredu bilakaeraren arabera. Horren harira, baloratuko da eskaera egileen eta beraiekin bizi diren arteko mendekotasun ekonomikoa, betiere, unitate hartzailearen eta hartu dituzten pertsonen artean diru bidezko traturik ez badago.

5. artikulua. Baldintzak

a. Eskatzaileen adina:

“A-Modalitatea”: deialdia zabaltzen den urtearen abenduaren 31n 18 eta 35 urte bitarte izatea.

“B-Modalitatea”: 36 urte edo gehiago izatea.

b. Errolda:

Dirulaguntzen onuradun diren bizikidetzaren unitateko pertsona guztiak dirulaguntza jasoko duen etxebizitzan erroldatuta egotea, dirulaguntza eskatzeko epea amaitu baino lehen.

Halaber, etxebizitzan kontratuaren titular ez den adin nagusiko pertsonarik erroldatuta balego, kontratuaren titularrek pertsona horiek erroldatik baja emateko eskaera egitea, eskaera aurkeztearekin batera.

Erroldak eta kontratuak bat etortzea adin nagusiko pertsonen kasuan.

Hernanin erroldatuta egotea gutxienez urtebeteko antzinasunarekin etenik gabe, dirulaguntza eskatzeko epea amaitzen den egunetik iraganera kontaktzen hasita.

- c. Hernaniko udalerrian kokatutako etxebizitza libre baten errentamendu-kontratuaren titular izatea, norberaren izena edo errentakide gisa, eta hori izatea bizikidetzaren eskatzailearen ohiko eta etengabeko etxebizitza. Errentamendu-kontratua sinatua izango dute errentakide guztiek banan-banan orri guztietan. Errenta-kontratuaren iraupenak, gutxienez, 12 hilabetekoa izan beharko du.
- d) Inolako familia-loturarik ez edukitzea etxebizitzaren errentatzailearekin edo haren bizikidetzaren unitateko kideren batekin, odolkidetasun edo ahaidetasunezko bigarren mailaraino.
- e) Errenta banku-transferentzia edo banku-agiri bidez ordaintzea.
- f) Eskatzaileetako edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideetako batek ere ez du izango bere jabetzako etxebizitzarik, salbu eta herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako jabetza osoko etxebizitza baten titularkide denean, eta titularkidetasun-portzentajea %50etik gorakoa ez denean, eta partaidetzen balio katastrala 76.500,00 euro baino gehiagokoa ez bada.

Hala ere, laguntza eskatu ahal izango du etxebizitza baten jabe %50ean baino gehiagoan denak baldin eta egiaztatzen badu ez daukala eskuragarri edo bere borondatearekin zerikusirik ez duen beste arrazoiren batengatik ezin dela bertan bizi.

- g) Bizikidetzaren unitateko diru-sarreraren muga urteko deialdian zehaztutako kopurua baino txikiagoa izatea.
- h) Bizikidetzaren unitateko kideek udal ogasunean zorrik ez izatea.
- i) Eskatzailea edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten (administrazio honek edo besteren batek emana) onuraduna izan badaiteke, ezin izango du dirulaguntza hau jaso.
- j) Eskatzaileak edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten (administrazio honek edo besteren batek emana) onuradun izateko eskubidea izanda ere, hura ukatu egin bazaio, betebeharrak ez betetzeagatik edota dokumentazio faltua aurkezteagatik, ezin izango du dirulaguntza hau jaso.

Nolanahi ere, onuraduntzat jotzeko, egiaztatu beharko da ea Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, Administrazio Publikoek ematen dituzten dirulaguntzen arauetan ezarritako baldintzak betetzen ote dituzten.

Bizikidetzaren unitatearen baliabideak zehazteko, eskatzailearen eta aipatu unitateko gainerako pertsonen baliabide guztiak konputatuko dira, hau da, etekinak nahiz ondarea.

1. Salbuespen egoerak

Dirulaguntza eskatzeko aukera izango dute eskatzaile hauek:

-Adinari dagokion salbuespena:

18 urte beteta ez izan arren, beren kaxa bizi diren gazteak, bizikidetzaren unitate berria sortu dutenean, hain zuzen ere. Udaleko Zerbitzu Sozialek egiaztatu beharko dute egoera hori.

-Jabetzako etxebizitzarekin lotutako salbuespenak:

- o Bananduta edo dibortziatuta daudenean. Kasu horretan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emalea aurkeztu beharko dira, etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeko.
- o Ohiko etxebizitzatik etxe-gabetu dituztenean. Kasu horretan, etxe-gabetze erabakia duen epaia aurkeztu beharko da.
- o Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeriako kasu bat denean. Udaleko Zerbitzu Sozialek egiaztatu beharko dute egoera hori.
- o Bere etxebizitza erabili ezin dutenean hondamendiren bat gertatu delako (uholdea, sutea, eta abar) edota suntsituta dagoela legez aitortu izan den kasuetan.

6. artikulua. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Hernaniko udalerrian egotea.
2. Etxebizitza Udal erroldan eta katastroan altan emanda egotea.
3. Etxebizitzak hirigintza onarpena izatea.

7. artikulua. Baztertzeak.

Ez dira onartuko kasu hauetan sartzen diren eskaerak:

- a. Alokaturako etxebizitza lehendik dagoen eraikin batean kokaturik ez badago, edo eraikin hori hirigintza-planeamenduan finkatuta ez badago edo haren aurreikuspenekin bat ez badator.
- b. Urteko deialdian zehaztuko den gehienezko alokairu-gastua gainditzen duten etxebizitzak
- c. Urtebetekoa baino iraupen txikiagoa duten alokairu-kontratuak.
- d. Logelen alokairuak.
- e. Berralokairuak.

8. artikulua. Bateriaezintasunak.

Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak helburu berarekin ematen diren beste dirulaguntzekin bateraezinak izango dira:

1. Gaztelagun Programaren alokairurako laguntzarekin.
2. Diru-sarrera bermatzeko errenta (DSBE) eta administrazio publikoen gizarteratze-politikatik eratorritako beste edozein errentarekin.
3. Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPE) dirulaguntzekin.
4. Gizarte-larrialdietarako laguntzekin (GLL), Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44. artikulua 2. a) atalean aipaturako alokairu-gastuei loturik daudenekin.

Halaber, oinarri hauen arabera emandako dirulaguntza ezin izango da bateratu honako hauekin:

5. Errentamenduko babes publikoko etxebizitza bat izatearekin.
6. Errentamenduko etxebizitza pribatu bat izatearekin Merkatu Libreko Alokairurako Bitartekaritzako ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programaren bidez edo Etxebizitza Hutsen Bizigune Programaren bidez.

II. ESKAERAK

9. artikulua: Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Eskabideak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN urtero argitaratuko den deialdian adierazitako epealdian aurkeztuko dira. Ez dira epez kanpo egiten diren eskabideak onartuko.

Laguntza hauek jaso nahi dituzten pertsonak, deialdian jasotakoari jarraiki, eskaera-orri ofiziala behar bezala beteta aurkeztuko dute. Eskaera-orria Hernaniko Udalaren hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan eskuragarri izango dute, baita udal web-orrian ere. Eskabidea Udalaren erregistroan aurkeztuko ahal izango da.

10. artikulua. Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak

Aurkeztu beharreko dokumentazioa hau izango da:

1. Eskaera-orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren NAREN, pasaportearen edo egoitza txartelaren fotokopia. Adin txikikorik balego, Familia Liburuaren fotokopia edo jaiotza-ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Dokumentazio hori beharrezkoa izango da, kasu guztietan, senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.
3. Etxebizitzan bizi diren kideen izen-abizenak eta NAREN, pasaportearen edo egoitza txartelaren zenbakia, bizikidetzaren unitate berekoak izan ala ez, Udalak egiaztatu dezan Biztanleen Udal Erroldan.
4. Etxebizitzaren alokairu-kontratuaren kopia, indarrean dagoena eta diruz lagundu daitekeen epe barnekoa.
5. Alokairu-kontratua Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-finken errentamendu-kontratuen erregistro edo fidantza gordailuan utzi izanaren frogagiria.
6. Eskatzailearen kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.
7. Etxebizitza baten titularkide izanez gero, aurkeztu beharreko agiriak:
 - Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.
 - Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.
 - Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.
8. Bizikidetzaren unitateko kide guztien ekitaldiko diru-sarrerara eta zergen gaineko honako dokumentu hauek:
 - 8.1. Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria.
 - 8.2. Azkeneko 3 hilabeteetako diru-sarreraren frogagiriak (nominak, autonomo ordainagiria...)
 - 8.3. PFEZaren aitortzea egitera behartua ez dagoenak honako hauek eman beharko ditu:
 - Besteren konturako langileak badira: kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrerara gordin guztiei buruzko dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu-emaileak emandakoa (10T).
 - Pentsiodunak edo bekadunak, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenak badira (Zerbitzu Sozialetako laguntzak barne): ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.
 - Langabezian egonik prestazioa jasotzen ez duenak Lanbideak igorritako inskripzioaldien txostena izeneko ziurtagiria.
9. Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak egunean daudela adierazten duen zinpeko aitortzea.
10. Beste diru-sarrerara batzuk (zenbatekoa adieraziko da) izanez gero eta/edo beste erakundeetan dirulaguntza eskatuz gero, hori adierazten duen zinpeko aitortzea.
11. Orokorrean edonolako dirulaguntzak jasotzea eragozten duen egoeran ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortzea. Halaber, oinarri hauen 5. eta 6. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela zinez aitortu beharko dute bai eskatzaileak bai eta bizikidetzaren unitate bereko adin-nagusiko pertsona guztiek ere.

12. Banaketa edo dibortzioa dagoenean, hitzarmen arau-emailea eta epai judiziala.
13. Etxe-gabetzea denean, etxe-gabetzea erabaki duen epaia.
14. Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeria kasu bat denean, oinarrizko gizarte-zerbitzuen txostena.
15. Hondamendia denean, Hernaniko Udaleko zerbitzuek frogagiri gisa emandako txostena. Suntsitze-egoeran dauden etxebizitzak kasuan, hori aitortzen duen legezko agiria.
16. Dirulaguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Eskatzaileek berariazko baimena eman diezaieke Hernaniko Udaleko udal zerbitzuei, eskumena duten erakundeek laguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzeko datuak bildu ditzaten, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5ko 3/2018 Lege Organikoko 6. artikuluan ezarritakoa betez. Erroldako datuak Udalak jasoko ditu zuzenean. Baimena eman ezean, dokumentazio guztia aurkeztu beharko dute eskariarekin batera.

Arau bera ezarriko da Ogasunari dagokion informazio honetan (betetako azken zerga-ekitaldikoak):

- PFEZ: Aitorpenaren laburpena.
- Ondasun higiezinak: Hiri etxebizitzak titularra
- Ondasun higiezinak: Gipuzkoatik kanpoko etxebizitzak.

11. artikulua. Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten. (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikulua)

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak konpondu ezean, eskaera bertan behera utzi dutela iritziko da eta prozedura artxibatuko da, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 94. artikuluan xedatutakoarekin bat ebazpena eman eta gero.

12. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Dirulaguntzetarako Lege Orokorren 14. artikuluan jasoak datozenaz gain, onuradunak honako hauek ere bete beharko ditu:

- Dirulaguntza oinarri hauetan jasotzen diren helburuak betetzeko erabiltzea.
- Eskatzen zaion informazio osagarri guztia Hernaniko Udalari aurkeztea.
- Dirulaguntza ematean kontuan izandako edozein gorabehera – hala objektiboa, nola subjektiboa – aldatzen bada, horren berri ematea.
- Oinarri hauetako 5. artikuluko b) atalean erroldatzeari buruz ezarritako baldintzak betetzeko egin beharreko gestioak egitea.

III. DIRULAGUNTZAK EMATEA

13. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa errentaren arabera finkatuko da: hileko errenta konputagarriaren portzentaje bat izango da, eskaera bakoitzeko hileko hainbat euroko gehienezko muga izango du, eta gehienez 12 hilabeterako emango da, diru-sarreraren arabera.

2. Dirulaguntzen gehienezko kopuruak urteko deialdietan zehaztuko dira.

3. Diruz lagundu daitekeen zenbatekoa kuantifikatzeko, kontuan hartuko da oinarri hauetako 1.3. artikuluan bazterketei buruz ezarritakoa.

4. Alokairu partekatua denean, eskatzaile bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

5. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo du gainditu hileko errentaren %50a.

6. Alokairu kontratu bakoitzari ematen zaion laguntzaren zenbatekoak ezingo du, inola ere, etxebizitzarako prestazio ekonomikorako (EPE) ezarri den gehieneko muga gainditu.

7. Esleipen-prozesuan A-Modalitateko eta B-Modalitateko eskariak aztertu eta esleituko dira. Dagokion adin-multzorako aurrekontu-partida erabiliko da.

Eskarien zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidaren esleitutako zenbatekoa gainditzen bada, ondorengo doitzea egingo da: lehenik zenbateko hori alokairu gastuaren %20ko dirulaguntza jasoko dutenen artean banatuko da proportzionalki (gehienez %10 arte). Ondoren, beharrezkoa bada, gainditutako zenbatekoa alokairu gastuaren %30eko dirulaguntza jasoko dutenen artean banatuko da proportzionalki (gehienez %10 arte). Jarraian, alokairu gastuaren %40ko dirulaguntza jasoko dutenekin egingo da eta, azkenik %50 jasoko dutenekin.

14. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntza zatika ordainduko da:

- Lehenengo ordainketa deialdia ebatzi ondoren egingo da. Ebazpenean zehaztuko da frogagiriak aurkezteko epea. Agiriak aztertuta, lehen ordainketa aginduko da, data horretara arte egiaztatutako alokairu gastuen arabera proportzioan.
- Bigarren ordainketa egin ahal izateko hurrengo egiaztatze-agiriak beranduenez ere diruz lagunduko den epea amaitu eta hilabetera aurkeztuko dira, bestela dirulaguntza bertan behera geratuko da. Agiriak aztertuta, dirulaguntzaren gainerako zatiari dagokion ordainketa aginduko da.

15. artikulua. Agiri egiaztagarriak.

Dirulaguntza emandakoan, ordainketa bideratu ahal izateko onuradunak agiri hauek aurkeztuko ditu:

- a. Alokairu kontratuaren baitan egindako hileko ordainketa agiriak. (Onuradunaren izenean agindutako banku transferentziaren agiria)
- b. Lan-bizitzari buruzko ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiak igorria, data eguneratua duena.
- c. Diru-sarreren agiriak (nominak, aparteko ordainsariak, etab.) edo norberaren kontura lan egiten duenak Gizarte Segurantzako kuotak ordaindu izanaren ordainagiriak. Langabezian egonik prestazioa jasotzen ez duenak Lanbideak igorritako inskripzio-aldien ziurtagiria.
- d. Beste dokumentuak: onuradunaren egoeran aldaketaren bat izan bada, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera dokumentazio berria aurkeztera behartzen duena.

Gastuak egiaztatzeko fakturak aurkeztuko dira, edo merkataritzako trafiko juridikoan froga balio bera duten edo administrazioaren aurrean eraginkortasuna duten bestelako agiriak, bai jatorrizkoak, bai zigilatutako fotokopiak.

Eskatzaileak agiri justifikagarriak dagokion epean aurkezten ez baditu, dirulaguntza bertan behera geratuko da. Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 37. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

16. artikulua. Finantzazioa.

Alokairurako dirulaguntzak finantzatzeko diru-baliabideak Hernaniko Udalaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak erabiliko dira. Urteko deialdian

zehaztuko dira partida(k) eta kopurua(k), betiere "A-Modalitatea"-Gazteak eta "B-Modalitatea"-Helduak bereiztuz. Bi modalitate hauetako partidak lotesleak izango dira, betiere modalitate bakoitzeko eskari guztiak aztertu eta esleitutakoan dirua soberan gelditzen bada.

Emandako laguntza guztien batura ezingo da izan horretarako onartutako aurrekontu-kreditua(k) baino handiagoa.

IV. PROZEDURA

17. artikulua. Laguntzak emateko irizpideak.

Dirulaguntzak emateko oinarritzko irizpideak oinarri hauen 4., 5. eta 6. artikuluetan zehaztuak daude. Ezarritako baldintzak eta bete beharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, dagozkion dirulaguntzak oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzetan emango dira.

18. artikulua. Prozedura.

Instrukzioa eta ebazpena.

1. Udalaren barruan dagoen Sailak egingo ditu oinarri arautzaile hauetan aurreikusitako laguntzen espedienteak instruitzeko lanak. Zerbitzu tekniko eskudunek eskaerak aztertu eta ebaluatuko dituzte, eta ebazpen-proposamena egingo dute. Dirulaguntzei behin betiko onarpena emateko organo eskuduna Alkatetza izango da.

2. Dirulaguntzen behin-behineko ebazpen proposamena, interesatuei jakinaraziko zaie, Hernaniko Udaleko iragarki taularen edota web orriaren bidez, eta egoki iritzitako alegazioak egiteko hamar eguneko epea emango zaie.

3. Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da. Bertan jasoko da: eskaerak aurkeztutako pertsonen zerrenda, proposatutako dirulaguntza eta zenbatekoa. Diru kopurua dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskari guztien artean banatuko da. Behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartuz gero, behin betiko zerrendetako diru kopuruetan aldaketak egon daitezke. Alegaziorik egon ezean, ebazpen-proposamena behin-betikoa bihurtuko da.

4. Ebazpenean berariaz jakinaraziko dira ezetsitako eskaerak, halakorik balego.

5. Ebazpena erabaki eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatuta. Aipatutako epean ebazpenik ez badago, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adierazi nahiko du.

6. Ebazpenean dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa-era zehaztuko dira.

19. artikulua. Onuradunaren baldintzak aldatzea.

1. Bere momentuan dirulaguntza ematea onartzeko baloratutako edozein baldintza aldatuz gero, etxebizitza, errenta, norberaren izenean ordaindutako zatia edo errentakideak aldatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa ere alda daiteke. Horrela bada, ebazpen berri bat egingo da.

20. artikulua. Iraungitzea.

Honako hauek izango dira dirulaguntza iraungitzeko arrozoi:

a) Dirulaguntza emateko arrozoi izan diren baldintzak ez betetzea.

b) Pertsona onuradunak uko egitea.

c) Pertsona onuraduna hiltzea.

d) Emandako datuetan edo eskabideari erantsitako erantzukizunpeko adierazpenetan iruzur egitea.

V. DIRULAGUNTZAREN KONTROLA

21. artikulua.

- 1.Hernaniko Udalak onuradunei eskatu ahal izango die egokitzat jotako agiriak aurkez ditzatela.
- 2.Udalak dituen datu baseak kontsultatu ahal izango ditu dirulaguntzaren oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.
- 3.Udalak eskubidea izango du, beharrezkoa ikusiko balu, dirulaguntza honen onuradunen etxebizitzetan kontserbazio eta bizigarritasun egoerak gainbegiratzeko. Horretarako, aldez aurretik esleipendunei jakinaraziko die Udalak zein egunetan eta zein ordutan duen ikuskatzea egiteko asmoa.
- 4.Hernaniko Udalak, bere fiskalizazio-eginkizunak betetzeko informaziorik eskatuz gero, dirulaguntzen onuradunek eman egin beharko diote.

VI. ARGITARA EMATEA

22. artikulua.

38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, 18. artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, 30. artikuluan eta 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 8 eta 9. artikuluetan, ezartzen dutena kontuan izanda, oinarri arautzaile hauei jarraiki ematen diren laguntzak Udaleko iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko dira, eta halaber gardentasuna eta informazio publikoaren eskuragarritasuna bermatzeko ezarritako tresnetan.

Gainera, dirulaguntzaren zenbatekoa 3.000 €-koa edo handiagoa bada, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

Beti errespetatuko da datu pertsonalak babesteko legeak xedatutakoa, eta, horregatik, datu pertsonalak modu disoziatuan emango dira.

VI. OINARRIEN INTERPRETAZIOA ETA HIZKUNTZA-OHARRA

23. artikulua. Hizkuntza-oharra.

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzemanaz gero, euskarazko testuak izango du balioa.

24. artikulua. Oinarrien interpretazioa.

Dirulaguntza emateko ardura duen organoari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira zalantzarik sortzen bada haiei buruz erabakitzea.

VII. ERREKURTSOAK

25. artikulua. Errekurtsiak.

Dirulaguntzak emateko behin betiko ebazpenaren kontra berraztertze-errekurtsioa jarri ahal izango da ebazpena eman zuen organoaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpenaren biharamunetik kontatuta.

Lehen xedapen gehigarria.

Araudi honek indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

Azken xedapena

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

HERNANIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIKUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA 2021 URTERAKO.

1. Xedea eta dirulaguntzaren epearen iraupena.

Laguntza hauen xedea da eskaera egiten duten gazteen eta gainerako herritarren ohiko bizilekua izango den etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea. Herritarrei etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen 1. artikuluan zehaztutakoa errespetatuko da.

Urteko deialdi honi dagokionez, gazteak kontsideratuko dira 1986. eta 2003. urte bitartean -biak barne- jaioak herritarrek.

Deialdi honetan eta berau arautzen dituen oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza.

Eusko Jaurlaritzak onartuak dituen alokairu laguntzen deialdiek, hau da, Gaztelagun (Alokabide), DSBEren EPO laguntza (Lanbide), GLL edo Prestazio Subjektiboaren Eskabidea (Hernaniko Zerbitzu Sozialak), lehentasuna izango dute udal laguntza hauekiko. Hori horrela, eskatzaileak derrigorrez eta lehentasunez tramitatu izan beharko du Jaurlaritzaren laguntza, eta hura lortzen ez badu bakarrik izango du udal laguntza hauek jasotzeko eskubidea. Eusko Jaurlaritzaren laguntza derrigorrez tramitatu behar horrek salbuespen bat izango du, hain zuzen ere udal laguntzen kudeatzaileak objektiboki zehazten baldin badu eskatzaileak ez lituzkeela beteko, inolaz ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak.

Urteko deialdi honi dagokionez, diruz lagunduko diren alokairu-gastuak 2021ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartekoak izango dira.

2. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura eta dirulaguntzak banatzeko irizpideak.

Deialdi honetan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa guztira 133.000 eurokoa izango da, eta hori 2021. urterako Hernaniko Udalaren Aurrekontu Orokorren partida hauetatik egingo da: 1 02.480.01.231.03 2021 (Gazteena) eta 1 02.480.01.231.04 2021 (Helduena). Partida osoen kopurua honela banatuko da:

- 76.500 euro: 18-35 urte bitarteko gazteek egindako eskarientzako ("A-Modalitatea")
- 56.500 euro: 36 urtetik gorako herritarrek egindako eskarientzako ("B-Modalitatea")

Dirulaguntzak emateko oinarritzko irizpideak oinarri arautzaileetan xedatutakoak izango dira. Irizpide nagusia hau izango da:

— Modalitate bakoitzean ("A-Modalitatea"-Gazteak eta "B-Modalitatea"-Helduak) dagokion adin-multzorako aurrekontu-kredituaren kopurua erabiliko da. Onuradunei urteko deialdiaren tauletan azaltzen diren gehieneko dirulaguntzen kopuruak esleituko zaizkie .

— Eskarien zenbateko osoak dagokion aurrekontuko partidan esleitutako zenbatekoa gainditzen badu, ondorengo doitzea egingo da: lehenik zenbateko hori alokairu gastuaren %20ko dirulaguntza jasoko dutenen artean banatuko da proportzionalki (gehienez %10 arte).

Ondoren, beharrezkoa bada, gainditutako zenbatekoa alokairu gastuaren %30eko dirulaguntza jasoko dutenen artean banatuko da proportzionalki (gehienez %10 arte). Jarraian, alokairu gastuaren %40ko dirulaguntza jasoko dutenekin egingo da eta, azkenik %50 jasoko dutenekin.

Emandako laguntza guztien batura ezingo da 133.000 eurokoa baino handiagoa izan.

3. Baldintzak

Dirulaguntza hauek arautzen dituzten oinarri orokorretako 5. artikuluan zehaztutako baldintzak bete beharko dira.

Erroldari dagokionez, Hernanin erroldatuta egotea gutxienez 6 hilabeteko antzintasunarekin etenik gabe, dirulaguntza eskatzeko epea amaitzen den egunetik atzera kontatzen hasita.

4. Kopuruak.

Diru-sarrerei dagozkien gehienezko mugak hauek izango dira:

- 28.000,00 euro gordin urtean, bizikidetzeta-unitatea pertsona bakar batez osatuta baldin badago.
- 39.000,00 euro gordin urtean, bizikidetzeta-unitatea bi pertsona edo gehiagoz osatuta baldin badago.

Norbere kontura lan egiten dutenei gutxienez 22.000 €-ko diru-sarrerak dituztela kontabilizatuko zaie.

Alokairu-gastuei dagokionez gehienezko kopuru hau ezin izango da gainditu: hilean 700,00 €-koa.

Alokairu partekatua denean, onuradun bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Dirulaguntzen zenbatekoak hauek izango dira:

- Pertsona bakarraren kasuan:

Diru sarrera gordinak eurotan	Alokairu-gastuaren %	Gehienezko dirulaguntza
26.000,01 eta 28.000,00 € bitartean	% 20	100 €
24.000,01 eta 26.000,00 € bitartean	% 30	150 €
22.000,01 eta 24.000,00 € bitartean	% 40	200 €
22.000,00 € arte	% 50	250 €

- Bizikidetzeta-unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badute:

Diru sarrera gordinak eurotan	Alokairu-gastuaren %	Gehienezko dirulaguntza
33.000,01 eta 39.000,00 € bitartean	% 20	100 €
30.000,01 eta 33.000,00 € bitartean	% 30	150 €
26.000,01 eta 30.000,00 € bitartean	% 40	200 €
26.000,00 € arte	% 50	250 €

5. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea eta lekua.

Dokumentazioa: Eskaerak dirulaguntza honetarako prestatutako eskaera-orri normalizatuan aurkeztuko dira, behar bezala beteta. Eskaera-orri normalizatuak www.hernani.eus web-orrian eta *hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan* egongo dira eskuragarri.

Eskaerarekin batera, dirulaguntza hauek arautzen dituzten oinarri orokorretako 10. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkeztuko da.

Horiez gain, banaketa, dibortzio edo izatezko bikote amaituen kasuan:

- Seme-alaba adingaberik badago: hitzarmen arautzailea, eta seme-alaba adingabeen zaintza justifikatzen duen epai judiziala, hala badagokio, non zehazten den hitzartutako seme-alabengatik mantenu-pentsioa.

Dagokion kasuan:

-Lanbidek igorritako ebazpena (EPO kobratzea dagokion edo ez adierazten duena).

-Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena (Gaztelagun alokairu-laguntza kobratzeka dagokion edo ez adierazten duena)

-Eusko Jaurlaritzak igorritako ebazpena (Eskubide Subjektiboaren Prestatzioa kobratzea dagokion edo ez adierazten duena).

Eskariak aurkezteko epea eta lekua:

Eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Eskariak aurkezteko dira udal erregistro elektronikoko bidez. Edo Hernaniko Udalaren hhz-*Herritarren Harrera Zerbitzuan* (Gudarien plaza, 1), astelehenetik ostiralera 8:00-14:00 (azken zita 13:30ean); eta astearte eta ostegunetan 14:30-19:00 (azken zita 18:30ean). Aurretik hitzordua hartu behar da.

6. Ebazpena eta jakinarazpena.

Ebazpena egiteko organo eskuduna Hernaniko Alkatetza da.

Prozeduraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, espedienteak tramitatze, ebazteko eta behar diren jakinarazpenak egiteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez. Epe hori deialdia argitaratzen denetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Prozeduraren ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta lege horretako 41. artikulua jasotzen dituen xedapenen arabera gauzatuko da.

7. Egiaztatze agiriak eta aurkezteko epea.

Aurkeztu beharreko egiaztatze-agiriak oinarri orokorren 15. artikuluan zerrendatutako agiriak izango dira.

Egiaztatze-agiriak aurkezteko epeak hauek izango dira:

-Lehenengo ordainketa deialdia ebatzi ondoren egingo da. Ebazpenean zehaztuko dira frogagiriak aurkezteko epeak. Agiriak hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan erregistratu beharko dira. Agiriak aztertuta, lehen ordainketa aginduko da, 2021ko urtarriletik hasita data hori arte dagozkion ordainagirien arabera.

-Bigarren ordainketa egin ahal izateko hurrengo egiaztatze-agiriak beranduenez ere 2022ko urtarrilaren 30a baino lehen aurkeztuko dira udal erregistroan, bestela dirulaguntza bertan behera geratuko da.

Edozein kasutan ere, 12 hilabete horietan zehar hasieran aurkeztutako dokumentazioarekiko aldaketarik baldin badago, horren berri segituan eman beharko dio onuradunak Udalari, eta dagozkion dokumentu berriak ere erregistroan aurkeztu. Jakinarazpen hori egingo ez balitz, egoera berria suertatu den datatik aurrera jasotako dirulaguntza kopuru osoa itzuli beharko dio onuradunak Udalari.

8. Hizkuntza-oharra.

Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzeman ez gero, euskarazko testuak izango du balioa.

9. Errekurtsoak.

Interesatuak deialdi honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, argitaratutako egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko oinarri hauek onartu dituen organo eskudunaren aurrean, argitaratutako egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzearen berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

10. Bateriaezintasunak.

Deialdi honetan araututako laguntzak bateraezinak dira oinarri orokorren 8. artikuluan zerrendatutakoekin.

Eskatzaileek deialdi honek diruz lagundu nahi duen xederako GLL, Gaztelagun eta antzekoak jasotzeko baldintzak betez gero, aipaturiko laguntza horietara bideratuko dira. Eta laguntza hauek, beraz, beste laguntzek babesten ez dituzten eta deialdiak jasotako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileetara daude bideratuta.